

# UDABERRIKO TXANGOAK

**Martxoaren 26an:**  
Sopuerta abentura

**Martxoaren 28an:**  
Igartubeiti baserria

**Apirilaren 4an:**  
Goikomendi-kuxkumendi

**Apirilaren 6an:**  
Lacturalera bisita

**Ordutegia: 10:30ean urten eta 18:30ean heldu.**

**\*Eroan beharrekoa: Erropa eroso eta zira.**





## **NORENTZAT:**

4 (urteko gela)-14 urte bitarteko gazteentzat.

Txangoetan egingo diren ekintza guztiak adin tarte honetako umeentzat egokituta dagoz.

## **URTEERA GUZTIETARAKO OHARRAK:**

- ⇒ Txango guztietan urteera eta helduera guztiak futbol zelai alboko autobus geralekuan izango da.
- ⇒ Eroan behar dana: Hamaiketakoa eta bazkaria (egun osoko ibilaldien kasuan)
- ⇒ Ez eroan: Dirurik, telefonorik, jostailu elektronikorik, eta abar.
- ⇒ Umeei ez jake medikamenturik emongo.

## **Gura diran txangoak aukeratu daitezke eta prezioak honeek dira:**

Txango 1era joatea: 12€/ Ez erroldatuak: 24€  
2 txangotara joatea: 20€/ Ez erroldatuak: 40€  
3 txangotara joatea: 28€/ Ez erroldatuak: 56€  
4 txangotara joatea: 36€/ Ez erroldatuak: 72€

## **Deskontuak:**

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGIa) edo beste diru-laguntzaren bat jasotzen daben familien kasuan, % 50eko deskontua aplikauko jako ume bakotxari.
- Guraso biak langabezian dagozan familien kasuan edo langabezian dagoan guraso bakarreko familien kasuan % 25eko deskontua aplikauko jako ume bakotxari.
- 3 seme-alabatik gorako familien kasuan (hirurak txango ezberdinetara joan ezker), %25eko deskontua aplikauko jako ume bakotxari.
- Morgan erroldatuta egon arren Larrabetzuko eskolan ikasten daben umeek Larrabetzun erroldatuak bezala ordainduko dabe.

**Aurretik izena emotea  
ezinbestekoa da!**

**Izena emoteko epea: Martxoak 1-16  
Angulerin**



## **NOLA EGIN ORDAINKETA?**

Udalak kargua egingo deutsue eta horretarako 2 bide dagoz:

Angulerira etorri eta:

1-Kontu korrontearen (libretaren) lehen orrialdearen kopia aterako dogu.

Edo...

2- kontu korronte fisikorik ez badozu, datu honeek ekarri beharko dituzu:

- Kargua pasauko dan kontu korrontearen titularraren izena eta 2 abizenak
- NAN zenbakia
- Helbidea
- Kontu korronte zenbakia

**Horreek Angulerin entregatzeko azken eguna: Martxoak 16.**

**Antolatzailea:** Larrabetzuko Udala-Kultura

